



# Aurrekontu orokorra 2019



LABURPENA

## 1. Zer da udal aurrekontua?

Udal aurrekontua, **goburu taldeak** urtebeterako dituen **lehentasunen finantza-erakusgarria** da.

Aurrekontuak isladatzen ditu Udalak ekitaldian **egingo dituen gastu eta proiektu guztiak, eta jasotzea espero dituen sarrera guztiak.**



**Aurrekontuetan Udal gobernuaren helburuak zehazten** dira, eta urtean zehar **helburu horien jarraipena** eta **lortutako emaitzak baloratzeko** tresna da.

## 2. Zenbatekoa da 2019rako udal aurrekontua?

2019. urterako aurrekontua 6.656.293,09€koa da, 2018koa baino %2,75 gehiago.

## 3. Diru-sarrera nagusiak

Diru-sarrera nagusienak Foru Aldunditik datoz, sarreraren %62a. Udal finantzaketako foro fondotik (UFFF) 4.131.767,09€ jasotzea espero da, tasetatik diru-sarreraren %7,92a eta zergetatik %22,80a.




Transferentziak	Besteak	Tasak	Zergak	Maileguak
4.324.693,09€	41.600€	527.200€	1.517.800€	245.000€

Eusko Jaurlaritzak	Foru Aldundia	UFFF	Besteak
139.926€	48.000€	4.131.767,09€	5.000€

## 4. Gastuaren banaketa

Gastuen banaketari dagokionez, aurrekontu osoaren %89,9 gastu arrunten beharrik asetzeko da; 2018arekin alderatuta %2,2a jeitsi da portzentajea.

Udala hiru arlotan banatzen badugu, **gastu arrunta** honela banatuko litzateke: aurrekontuaren %44,64 herritartasunera bideratzen da, %29,44 lurraldera eta %25,92 antolaketaarako da.




Arloa	Besteak	Lurraldea	Antolaketa
Besteak	2.681.342,74€	1.768.620,10€	1.556.800,25€

Balio absolutuetan Udalak herritartasun arlora 2.681.342,74€ bideratuko ditu, 1.768.620,10€ lurraldera eta 1.556.800,25€ antolaketa.

## Herritartasuna


Herritartasun arloko lan ildoak 10 programetan bana daitezke:



Programa	Besteak
Zinea	31.015,00€
Gazteria	121.300,00€
Festak	137.130,88€
Euskara	174.505,35€
Musika Eskola	187.000,00€
Kirolak	278.772,64€
Haur eta LH.ko ikastetxeak	341.561,80€
Hiritarren segurtasuna	392.331,41€
Kulturaren sustapena	413.940,10€
Lehen mailako gizarte laguntza	603.785,56€

## Lurraldea


Lurralde arloko lan ildoak 11 programetan bana daitezke:



Programa	Besteak
Hilerria	5.600,00€
Merkataritza	12.500,00€
Bide publikoak	20.000,00€
Enpleguaren sustapena	56.100,00€
Herri argiteria	72.200,00€
Ingurugiroa eta mendiak	92.379,84€
Parkeak eta lorategiak	163.000,00€
Kale garbiketa	255.221,08€
Hirigintza	302.482,63€
Zerbitzuak	373.336,55€
Hondakinen kudeaketa	415.800,00€

## Antolaketa


Eta azkenik, Antolaketa arloko lan ildoak 5 programetan bana daitezke:



Programa	Besteak
Herritarren arreta	103.086,87€
Politika ekonomiko eta fiskala	197.371,33€
Zor publikoa	254.000,00€
Gobernu organoak	339.805,94€
Administrazio orokorra	662.536,11€


## 5. Inbertsioak eta kapital transferentziak

2019an, inbertsio eta kapital transferentzietara 649.530€ bideratuko dira (aurrekontuaren %9,76). **Inbertsioak** eta kapital transferentziak hiru arloetan honela banatzen dira:



2019ko inbertsio garrantzitsuenak honakoak dira:

DESKRIBAPENA	HASIERAKO AURR.
Autobiako zubian konponketak	15.000€
Espaloiak eta asfaltatze lanak	133.000€
Txermingo aparkalekua	109.000€
Oria ibaiko barandilla berritu	20.000€
Haurtzentzat parkea	30.000€
Hiri altzarien erosketa	20.000€
Herri argiteria berriztatu	70.000€
Nagusia 38 it erreformak	50.000€
Txermin 15-17 berogailu eta altzariak	8.500€
Aljibearen berrikuntzak	15.000€
Parke estaliaren proiektua (kirold. Ond)	8.500€
Kiroldegiko kantxa berritzea	20.000€
Haurtzeindegiko obrak	10.000€
Flemingo obrak	70.000€



Orokorrean, honela banatzen da gastu osoa udal programa edo lan ildo nagusienetan:

## 6. Finantza orekatuak eta iraunkorrak

Udal finantzen egoera ezagutu ahal izateko kontzeptu ezberdinak azter ditzakegu: egonkortasuna, iraunkortasuna, inbertitzeko ahalmena, likidotasuna..

**Egonkortasuna:** finantzatzeko ahalmena edo beharra da. 2019rako helburua zero defizita da, eta Villabonak betetzen du. 2017ko likidazioan (onartutako azken) 599.552,24€ superabita izan zuen Udalak.

**Iraunkortasuna:** Udalaren zorpetze maila. 2019rako helburua, zorrak diru-sarrera arrunten %72a baino txikiagoa izatea da. Udalaren zorpetze maila %26,14 da. Azken legegaldian udalaren zor bizia %38 jaitsi da, 2.578.700€tik 1.594.000€tara.

**Inbertitzeko ahalmena:** Diru-sarrera arrunten gastu arruntak kenduta lortzen den emaitza da, 404.530€koa da; beraz, inbertitzeko ahalmena %6koa da.

**Likidotasuna:** Udalaren likidotasun-egoerak egin beharreko ordainketak, batez beste, 13 egunetan egitea ahalbidetzen du.

**Gastu orokorretako diruzaintza gerakina:** Urteko aurrekontuan kreditu-aldekak finantzatzeko erabil litekeen aurreko urteetako soberakina da. Onartutako azken likidazioan, (2017) 1.627.710€ko diruzaintza gerakina izan zuen Udalak.

**Udal finantzen osasuna ona da.**